

APIKA

Asociación de Productores Audiovisuales
Ikusentzunezko Produktoreen Elkartea

FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ZINEMA

DOKUMENTALA

IDEIATIK EMAITZARA

BI KASU PRAKTIKO

TAILERRAREN IRAKASLEA

FÉLIX CÁBEZ

2019ko Otsailaren 7 eta 8an

9:00 h. - 13:00 h.

EUROPA Biltzar Jauregiko SALBURUA aretoan.



TAILERRAREN ILDO OROKORRAK

Ikus-entzunezko "dokumentala" ez da berez genero bat, edukiontzi erraldoi bat baizik, eta ez-fikzioaren adierazpen imajinagarri guztiak sartzen dira bertan. Edozein gai izan daiteke ekoizpen dokumental on baten oinarri.

Zinema dokumentala ikus-entzunezko adierazpen askeena da, ez dagoelako haren garapena mugatzen duen arau idatzirik. Proiektua ongi egiteko oinarritzko bi tresna daude: aukeratutako gaia sakon ezagutzea eta eskura dauden baliabideak behar bezala egokitzea. Nagusiki, hori egin behar du film dokumental bat idatzi, ekoitzi edo zuzentzeko abentura aberasgarriari ekin nahi dion edonork.

Tailer honek hasierako ideiaren ibilbide osoa aztertzea proposatzen du: hau da, hasi proiektua martxan jartzen duen ideiatik, eta amaierako emaitzara arte. Prozesu horrek barnean hartzen ditu ikerketa, idazketa, finantzaketa, ekoizpena, ikus-entzunezko lengoia, baliabide teknikoak, edizioa, banaketa, merkatua, zinema-jaialdiak, eta abar. Félix Cábez zuzendari, idazle eta ekoizleak 15 urtetik gorako eskarmentua du, eta, bere eskutik, xehetasun osoz aztertuko dugu bere dokumentaletako bitan erabili duen sormen-prozesua. Dokumental horiek bi estilo desberdinetan sar daitezke:

-DOKUMENTAL HISTORIKOA/INFORMATZEKOA/KAZETARITZAKOA

-ARTE-SORKUNTZAKO DOKUMENTALA



Irudiaren Zientzietan lizentziatu zen, Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta 90eko hamarkadaren hasieratik du ikus-entzunezko munduarekin lotura. Espainiako telebista-kate nagusientzako programa ugaritan aritu da gidoilari, zuzendari eta ekoizle.

2000. urtetik aurrera, zinema eta telebista dokumentala izan dira haren laneko jardunaren ardatza. Izan ere, urte hartan egin zuen bere lehen filma genero horretan: **"Buñuel en Hollywood"**. Luis Buñuelek bere erbestealdi luzean Estatu Batuetan bizitako esperientzia garrantza jorratzen du filmak. Ondoren, "Almodóvar siglo XX" zuzendu zuen, Pedro Almodóvar zuzendariaren obrari buruzkoa.

Azken hamarkadetan film luzeetarako gidoiak idatzi ditu eta koreografo eta dantzari nabarmenekin aritu da elkarlanean, ikus-entzunezko zenbait lan sari askodunetan.

2005ean, musika-gai bati buruzko lehen dokumentala amaitu zuen: "Cooking for Jenny", piano eta orkestrarako kontzertu baten estreinaldiari buruzkoa. 2010ean **"La tierra de las mil orquestas"** idatzi eta zuzendu zuen. Musikari eta gizarte-gaiei buruzko lan horren ardatza Venezuelako orkestra-sistema zen, eta Plácido Domingo izan zen kontalaria.

2012an, aurrez inoiz ikusi gabeko materiala agertu zenez, berriz argitaratu zuen "Buñuel en Hollywood", ordura arte galduta zeuden protagonistaren irudi berriak sartu ondoren.

2012an, halaber, **"The Labèque Way"** estreinatu zuen, Katia eta Marielle Labèque frantses piano-jotzaileen bikote bitxiari buruzko film luze musikala. Dokumentalak Montrealgo zinema-jaialdian izan zuen munduko estreinaldia, eta ondoren Londres, Stockholm, Habana, Madril eta Lisboako lehiaketetan proiektatu zen.

2006 eta 2013 bitartean, Zebra producciones konpainiaren eduki-saileko zuzendaritzarekin uztartu zuen dokumentalgintza.

2014an musikaren eta irudiaren arteko harremanari buruzko azterlan berri bat amaitu zuen: "Las voces de P.J.".

2016an "Memoria" idatzi eta zuzendu zuen, María Cristina Masaveu Peterson Fundazioak ekoiztutako lan dokumental berria.

2018an "La generación del 87" multimedia-proiektua egin du. Bi osagai ditu: bata, 2018ko lehen hiruhilekoan Madrilgo Conde Duque zentroan ikusgai egon zen argazki-erakusketa handia, eta bestea, Movistar+ekin batera koproduzitutako dokumental bat, 2019ko urte hasieran grabatuko dena.



1. JARDUNALDIA

DOKUMENTAL HISTORIKOA

BUÑUEL EN HOLLYWOOD

2012. 52´

ROSWELL PRODUCCIONES SL ETA CANAL PLUS (ESPAINIA) ARTEKO KOPRODUKZIOA



FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA




Jatorrizko bertsioa estreinatu eta hamar urtera, berriz ere editatu eta argitaratu zen Luis Buñuelen abentura amerikar zirrara garria irudikatzen duen dokumentala.

Zinemagileak berak 40ko hamarkadan New Yorken filmatutako material berria agertu denez, are gehiago sakondu dezakegu Espainiako kulturgintzaren oinarri sendoenetako baten bizitzaren aro ezezagun horretan.

Bidaia zirrara garri eta harrigarri bat, Luis Buñueli arrakastarik eta glamourrik ez, baizik eta onarpenik eza, desesperazioa eta are gosea ere ekarri zion bide batean zehar.

JARDUNALDIAREN GAI NAGUSIAK

- Aurretiazko ikerketa eta dokumentazioa
- Artxiboko materiala aurkitu eta erabiltzea
- Elkarrizketa
- Gaur egungo irudiak testuinguru historikoetan erabiltzea
- “Pertsonaia” sortzea



2. JARDUNALDIA

EL RETRATO

APIKA

Asociación de Productores Audiovisuales
Ikusentzunezko Produktoreen Elkarte

THE LABÈQUE WAY

2012. 52´

ROSWELL PRODUCCIONES SL ETA EL DESEO (ESPAÑA) ARTEKO KOPRODUKZIOA

Klasikoak, abangoardistak, flamenkoak... ezinezkoa da Katia eta Marielle Labèque ahizpa piano-jotzaileen duo mitikoari etiketarik jartzea.

The Labèque Way filmak piano-jotzaile errepikaezin horiei jarraitzen die, euskal perkusio tradizionalaz lagunduta Ravélen boleroa interpretatzen duten bitartean; bizirik dauden konpositore nabarmenei agindu dizkieten orkestra-pieza berriak estreinatzeko erronka zailari aurre egiten dioten bitartean; eta abentura artistiko eta pertsonal arriskatu eta zirrargarrienetan parte hartzen ari direnean. Haiekin batera, haien lagun eta lankideak agertzen dira: Sir Simon Rattle, Alessandro Baricco eta Mayte Martín.

JARDUNALDIAREN GAI NAGUSIAK

- Erretratoa dokumental mota bezala.
- Ahots ofa. Analisia eta erabilera.
- Leiv-motiv-a edo hari eroalea.
- Kontararako erritmo filmikoaren egokitzea.
- Musika elementu narratibo bezala.
- Dokumentala adierazpen artistiko eta plastikoko ibilgailu bezala.

Laguntzen dute:

Diputación Foral de Álava



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Fundación Vital Fundazioa

FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA



ZINEMA DOKUMENTALA

IDEIATIK EMAITZARA

BI KASU PRAKTIKO

LAU ORDUKO BI JARDUNALDI

- JARDUNALDIKO GAIAREN AURKEZPENA/SARRERA
 - AUKERATUTAKO DOKUMENTAL MULTZOA IKUSTEA
 - GAI BAKOITZARI DAGOZKION ARLOAK GARATZEA
 - TAILERREKO PARTE-HARTZAILEEKIN EZTABAIDA AZALDUTAKO GAIEI BURUZ
- Bilera pertsonalizatuak egingo dira proiektu dokumentalak izanik tailerrera bertaratzen direnekin.

Laguntzen dute:



Diputación Foral de Álava



Fundación Vital Fundazioa

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA